

# ESTATU BATUETAKO IDAHO ESTATUKO EUSKARAREN AZTERKETA “B” TITULURAKO TESINA

*Jon Joseba Etxabe Jauregi*

## **Sarrera gisa**

Idahoko euskaldunen eta euskeraren egoera aztertzea izan da iker lan honen helburua. Euskarak ingelesarekin nahasian fenomeno linguistiko normalak sortu izan ditu eta ni guretzat bitxiak egiten zaizkigunak aztertzen saiatu naiz lan honetan.

Euskararen garapen eta bilakaera honetan, ezinbestekoa iruditu zait datu historikoak eta sozial prozedurak duten garrantzia aipatzea, egoera hobetoago ulertzeko azaletikez bada ere. Ez dago esan beharrik euskal kolonia bakoitzak eta Estatu Batuetakoak ere bere ezaugarri propioak dituztela. Ohituak gaude gaztelaniak eta frantsesak euskararengan duten eraginak aztertzen, baina ingelesarekin sortu diren fenomenotaz ezer gutxi idatzi izan da.

Lan hau han bizi izan nintzen egonaldi baten fruitua da. Itxaron dut, lan honek zerbait berria jasoko duela euskararentzat eta beste lan sakonagoentzat urrats bat izango delakoan geratzen naiz.

## **AURKIBIDEA**

Idaho hego-mendebaldeko euskaldunak

– Datu historiko batzu.

Erabilitako bibliografia eta artikuluak.

– Soziologia ikuspuntutik ohar batzu.

– Mailegu linguistikoen zerrenda.

– Personaiaren inguruan.

– Komunikabideen inguruan.

– Nekazaritzaren inguruan.

– Kirolaren inguruan.

– Jaiaren inguruan.

- Etxebizitzaren inguruan.
- Garraioen inguruan.
- Hiriaren inguruan.
- Gramatikaren beste fenomeno batzu.

## IDAHO HEGO-MENDEBALEKO EUSKALDUNAK

### Datu historiko batzuk

Idaho Estatuko hego-mendebaldeko zati hau, lurraldeari begiratuz gero, gutxi gora behera Euskal Herria baino hiru aldiz haundiago dela esan behar dugu. Bestalde, biztanlegoari dagokionez, ezin dezakegu gauza bera esan. Aipaturiko lurralde honek, berrehun mila biztanle besterik ez ditu, zeinetatik ehun eta hoge mila Boisen (Estatuko hiriburua) kokatzen dira. Hego-mendebaldeko herrialde honek, Boise inguruko kondaduak hartzen ditu bere barnean: Ada, Gem Canyon, Owyhee, Elmore, Gooding eta Lincoln kondaduak hain zuzen. Kondadu guzti hauetan euskaldunak aurkitzen ditugu. Idahoko euskal komunitate hau, Estatu Batuetako haundiena dela baieztatu dezakegu bildur haundirik gabe. Boiseko Euskal Etxeko datuen arabera hamar mila euskal jatorrizko pertsona bizi dira Idahoko zati honetan.

Estatu batuei gagozkiorarik, orokorrean esan dezakegu honako Estatu hauetan bizi direla euskaldunak: Idaho, Oregon, Nevada, Utah, Wyoming eta Californian batez ere. Dena dela beste lurralde batzuetan ere aurkitzen ditugu baina oso sakabaturik.

Emigrazioak, bere konplexutasunean elementu asko darama bere baitan eta hauetariko garrantzitsuenetako bat hizkuntzarena da, noski. Harrigarria gertatzen bazaigu ere, ohartu izan gara nola, Idahon eta bereziki Boise inguruan bizkaitarrak soilik bizi diren, edo ia erabat. Zehaztasun haundiagaroko esan dezakegu gainera horko biztanleak Lekeitio, Gernika, Markina eta herri hauen inguruetakoa direla sortzez edo bestela odolez. Oregon, Utah eta Wyoming-en berriz, bizkaitarrak eta nafartarrak nahasten dira. Nevada eta Californian gauza bera gertatzen da nafartar eta iparraldekoen artean.

Beraz, eta hizkuntzara itzuliz, ondorioa bezala ateratzen dezakegu euskalki desberdinak aurkitzen ditugula segun eta non ibiltzen garen.

Euskal emigranteen kantitateari buruz, esan mila bederatzirehun eta berrogeita-bost garren urtean Estatu Batuetako Euskal Ordezkaritzak, zeina Fifth Avenuen - New York-en kokatua zegoen, hamasei mila immigrante omen zeudela kalkulatzeko zuen (1). Hauetatik, bi mila bostehun eta hiru mila artean Idahon bizi edo lanean zeudela zioen. Gaur egun ez zaigu erreza jakitea zehaztasun osoarekin zenbat aurkitzen diren Estatu batuetan, zeren eta Euskal Ordezkaritza horrek ez bait du funtzionatzen. Dena dela, gutxi gora behera eta NABO (North American Basque Organization)ren onerizpenari jarraituz hoge eta hamabost mila euskaldun inguru bizi dira Estatu Batuetan.

Dirudienek lehendabiziko immigranteak itsasgizonak izan ziren. Datu batzuk baditugu nola Yudarte izeneko artzaia 1850. urtean San Francisco inguruan aurkitzen zen (2). Gizon hau Argentinatik etorria zen. Beranduago, Californiatik Nevada eta Oregon aldera euskaldun gehiago zabaltzen hasi ziren artzantza lanbide bezala

zutelarik (3, 4). Idahoko hego-sartalde honetara lehendabiziko euskaldunak urrearen bila etorriak ziren. Nevadan, artzai lanetan 1873.eko uztailean aurkitzen ditugu lehendabiziko euskaldunak (5). Idahon lehen euskalduna 1867an azaltzen da erregistro liburuak diotenez. Azkuenaga du bere abizena, bizkaitarra jatorriz eta artzai bezala lan egiten zuen (6). Gizon hau itsas gizona edo zehazkiago untxi bateko kapitaina omen zen eta Idahorantz abiatu zen orduko urre sukarrari jarraituz.

Geroztik, urtez urte, euskal inmigrazioa haunditzen doa. Bertan euskaldun belaunaldi berri bat ere sortzen da eta bertako gizartean murgildu eta asimilatzen doana (7). Gerla Mundialaren urteetan zehar emigrazioarentzat oztopo administratiiboak zorrotzu egin ziren eta orduztik kontrol gogorragoak aurkitu izan ditu Estatu Batuetan sartzeko. Gehienak artzaintzarako kontratuen bidez joan izan ohi dira hiru edo lau urteetarako. Urte batzuk igaro ondoren, asko ziren beren herrietara. Hala eta guztiz ere, beste jende gazte ugari, momentuko oportunitateak aprobetxatuz eta ekonomia abantailak ikusiz bertan geratzen saiatu ziren eta denboraren poderioz belaunaldi berri bat sortaraziz.

### **Erabilitako bibliografia eta artikulak**

1. U.S. Bureau of Census, Sixteenth Census of the United States 1940. Population-Vol-II Part I and Part II. Washintong Government Printing Office 1943.

2. Altrocchi-Julia Cocley "Spanish Basques in California". Catholic World, CXIV January 1938.

3. Van Valkenburg, Peter "Shepherd Basques in California" Overland LXXXII August 1924.

4. Cressmen, L. S. and Yturri, A. "The Basques in Oregon" Commonwelsth Review XX, March 1938.

5. County Clerk's Office in Winnemucca-Nevada.

6. Gaiser, Joseph H. "The Basques of the Jordan Valley Area". Unpublished PH. U. dissertation. University of Southern California, 1945.

7. Sleszynski, Thaddeus. "The socond Generation of inmigrants in the Assimilation Process" Annales-XCIII January, 1921.

— De Uriarte, G. "Self-determination in Europe". New Statesman and Nation. XVI 1933.

— Harkness, I. B. "Basque Sttlement in Oregon". Oregon historical Quaterly XXXIV 1933.

— Silen SOR. "La historia de los Vascongados en el Oeste de los Estados Unidos. New York Las Novedades Inc. 1917.

— Wilcox, Mary S. "A Historical Study of the basque Race With Special Reference to the United States". Unpublished Master's Thesis, University of Utah 1934.

### Soziologia ikuspuntutik ohar batzu

Idaho hego-mendebalaldeko inmigrazioari dagokionez, erabat bizkaitarra dela esan dezakegu salbuespen batzu at.

Lurralde honetako jendeak Markina, Lekeitio eta Gernikan dute beren nolabaiteko sorlekua. Beraz bizkaitar euskalkia entzungo dugu.

Idahon azaltzen den jendea baserri mundukoa da, nekazal mundukoa erabat. Han emigrazioak bete duen lana artzantzari lotuta egon da, hasiera batean behintzat. Erraz ulertu dezakegu nola jende honek ez zuen Kultur maila haundirik eta gainera ingeles hizkuntza ezjakiteak horrelako lanetara bultzatzen zituen. Euskalduna hara agertzean, tradizio edo ohitura horrekin aurkitzen zen eta bestaldetik azpiegitura bat osatua eta ondo antolatua aurkitzen zuen lan horretan —artzantzan alegia— aritzeko. Zer esanik ez dago artzai bizitza paraje horretan oso latza dela eta izugarritzko bakardadean eta inkomunikazioan murgiltzen duela pertsona bat. Sinesgaitza egiten da nola bertan urte asko daraman pertsona batek ia ingelesez hitzeggin ezin duen. Berehala uler daiteke arazo honen zergatia.

Bertara joan den jendea; adinari dagokionez, gaztaroan joan ziren portzentai haundi batetan.

Honela: % 62 hamabostetik hemeretzi urte bitarteko jendea zen. Beste % 27, Hogeitik Hogeitalau urte bitartekoak eta beraz ikusi dezakegunez, % 89 hamabostetik hogeitalau urte bitartekoak ziren han azaldu zirenean. Jende honek euskara du bere hizkuntza eta zehazkiago esanda bizkaiera euskalkitzat. Hau erabiltzen dute beren arteko harremanetarako, hau bait da benetan menderatzen duten hizkuntza bakarra nahiz eta hizkuntza honetan ere alfabetatu gabeak izan. Gehienak nola hala ere gaztelaniaz hitzegiten badakite oso maiz ez erabili arren; mexikar jendeekin ez baldin bada.

Hezkuntzari dagokionez, euskaldunen erdia baino gehiagok; % 65- hamar urte bete zituen arteko eskola dute. Beste multzo bat; % 16 hona etorri zirenean analfabetoak ziren. Beste ehuneko 17 bat hamalau urte arteko eskola dutela diote. Beste % 2 batek batxilerra edo unibertsitate mailako ikasketak eginak dituzte, hauek nahiz Estatu batuetan edo Euskal Herrian burutuak.

- % 16 Alfabetatu gabeak.
- % 65 Hamar urte arteko ikasketak.
- % 17 Hamalau urte arteko ikasketak.
- % 2 Batxiler edo unibertsitateko ikasketak.

Datu hauek nahiko adierazgarriak dira ikusteko maila kulturala. Kultur ezagueria batek garrantzi handia duela hizkuntza bat asimilatzeke ez dago esan beharrik, eta hemendik atera ditzakegu ondorioak aipaturiko beste faktoreei erantsiz, noski.

Inmigrante multzotik aparte, gaur egun, lehendabiziko eta bigarren belaunaldiak, hau da; bertan jaiotako jendeak, oso garrantzi handia du egoera soziolinguistiko hau aztertzerakoan. Euskal inmigrazioaren kolektibitateak mundu itxi bat sortu zuen bere inguruan eta honen arrazoiak hizkuntza eta integrazio oztopoak medio zirelarik. Gauza berdina gertatu zaio mexikatar komunitateari, adibide bezala ipintzearren. Alderantziz, anglosajoi, irlandar eta iparraldeko beste europarrak, nortzuk oso erraz gainditu dute hizkuntza eta asimilazio prozedura, gaur egun, beren identitatea multzo bezala galdurik dute. Dena dela gaur joera bat ikusten da Estatu Batuetan bakoitzak bere ezaugarriak berreskuratzeko asmoa.

Euskaldunen hertsitasun honek, komunitate honi belaunaldi arteko iraupena eta bizia ziurtatu dio. Fenomeno honek berarekin eraman izan ohi du, euskaldunen arteko harremanak hestua izatea. Honela, euskal multzo sendo bat toki berdinean topatu izan denean euskal etxeak sortu izan dituzte. Etxe hauen eginkizuna euskal kultura eta festak aurrera ateratzea izango da. Beste hitz batzutan, hauen helburua euskaldunak elkartzea besterik ez dute. Dantza, euskara eta kultur ikastaroak belaunaldi berriei nortasunaren euskarri bat eskeintzen die bakoitzaren nortasuna sendotu nahian. Denon ezaguna da ere Renoko unibertsitateak duen garrantzi eta eragina euskal kulturaren arloan.

Euskal inmigranteak, kopuru handi batetan, ezkontzak ere beren artean egin izan ohi dituzte kopuru handi batetan eta konprobatu dagoenez familiaren bidez bakarrik dago ziurtatuta hizkuntza baten iraupena eta areago emigranteen kasuan. Euskaldun bat, amerikar batekin ezkondu izan ohi denean, ia erabat, salbuespen bitxi batzuetatik at, hoiene seme-alabak ez dute euskararik ikasi. Argigarri bezala esan nahi dut Ipar Ameriketara eta euskaldunen artean nola, nahiz eta askoz eta belaunaldi berriak bereziki hizkuntza galdu izan, ez dute horregatik euskal nortasunaren kontzientzia galdu. Hizkuntza ordezkaturia izan da euskal kultur kontzeptu zabal baten alde. Euskarak hizkuntza bezala sozial komunikaziorako papera galdu egin du Idahon, hizkuntzaren behar sozial hori ez dute nabaritzen gehienak behintzat. Horrela bitxikeri bezala ohartu izan naiz, nola dantza —euskal dantza— ikuskizun bihurtzen da gizarte guztiaren aurrean eta beren nortasunezko ezaugarri nagusienetako bat.

## MAILEGU LINGUSTIKOEN ZERRENDA

### Pertsonaiaren inguruan

Neska laguna [neska laguna]	Andregai	Girl-friend
Mutil laguna [mutilaguna]	Senar-gaia	Boy-friend
Adresa [adresa]	Helbidea	Adress

Artist [artist]	Artista	Artist
Nouna [nouna]	Ezaguna	Known
Feimesa [feimesa]	Ospetsua	Famous
Auta [auta]	Kanpo	Out
Bulxeta [bulseta]	kaka-zaharra Zuzenean itzuliz gero bere esanahia —zezen kaka— litzateke	Bull-shit
Sanabaganatxua [sanabaganacwa]	Puta semea Literalki bere esannahia —arma baten semea— litzateke	Son of the gun

Bi azkeneko izen konposatu hauek dira euskaldunak gehien erabiltzen dituen biraok; behintzat euskararekin zerbait ikusirik dutenak.

### **Komunikabideen inguruan**

Nusa [nusa]	Albistea	New
Nuspeperra [nuspera]	Egunkaria	Newspaper
Reporterra [reportera]	Kazetaria	Reporter
Magazina [magasina]	Aldizkaria	Magazine
Tibixa [tibiša]	Telebista	T.V. Television
Raiterra [raitera]	Idazlea	Writer
Reidixua [reidisu]	Irratia	Radio

### **Nekazaritza inguruan**

Mauntena [mauntena]	Mendia	Mountain
Balia [balja]	Harana	Valley
Topia [topja]	Gailurra	Top
Farma [farma]	Baserria	Farm
Farmerra [farmera]	Baserritarra	Farmer
Xipa [sipa]	Ardia	Sheep

Xiperra [sipera]	Artzaia	Shepherd
Jebia [xebja]	Astuna	Heavy
Krika [krika]	Erreka	Creek
Plauxa [plausa]	Goldea	Plough

**Kirolen inguruan**

Esporta [ešporta]	Kirola	Sport
Sokerra [šokera]	Futbola	Football
Soker pleierra [šoker plejera]	Futbolaria	Soccer player
Jai Alai [xai alai]	Pelota jokoa	Jai Alai
Fast [fašt]	Azkar	Fast
Partixa [partixa]	Festa	Party
Finitu [finitu]	Amaitu	Finish
Traka [traka]	Atletismoa	Track

**Jaia inguruan**

Singerra [singera]	Abeslaria	Singer
Dantzaplaza [dancaplasa]	Dantzatokia	Dance place
Ambrela [anbrela]	Euritakoa	Umbrella
Alkojola [alkoxola]	Alkohola	Alcohol
Drinka bat [drinka bat]	Tragu bat	One drink
Tiketa [tiketa]	Txartela	Ticket
Uikena [wikena]	Asteburua	Week end
Danserra [dansera]	Dantzaria	Dancer
Japixa [xapisa]	Alaia	Happy

Jelou esan [xelou ešan]	Agurtu	To say hello
Ask ezaiozu [ask esajosu]	galdetu ezaiozu	Ask him
Laboreguna [laboreguna]	laneguna	Labor day

**Etxebizitza inguruan**

Beismena [beísmena]	Sotoa	Basement
Plasa [plaša]	Tokia	Place
Elebadorea [erebadorea]	Igongailua	Elevator
Nusa [nuša]	Berria	New
[Esmoka] esmoka	Kea	Smoke
Dangerra [dangera]	Arriskua	Danger
Espoildua [espoildwa]	Kondatua	Spoil
Ofiza [ofisa]	Bulegoa	Office
Frigoa [frigoa]	Hozkailua	fridge
Kukerra [kukera]	Sukaldaria	Cook
Barmana [barmana]	Tabernaria	Barman
Piknixa [piknisa]	Askaria	Picnic
Panakixa [panakisa]	Pastela	Pan-cake

**Garraioen inguruan**

Friueia [friweja]	Autobidea	Freeway
Espida [éspida]	Abiada	speed
Brixa [brisa]	Zubia	Bridge
Karroa [karoa]	Berebila	Car
Troka [troka]	Kamioia	Truck



Pikapa [pikapa]	Furgoneta	Pick-up
Draibetu [draibetu]	Gidatu	To Drive
Turnatu [turnatu]	Buelta eman	To turn
Tiketa [tiketa]	Multa	Ticket

**Hiria inguruan**

Kapitola [kapitola]	Hiriburua	Capitol
Dauntauna [dauntauna]	Hiribarnea	Down town
Postofiza [poštofisa]	Postetxea	Post Office
Unibersitía [uniperšitja]	Unibertsitatea	University
Jospitalea [xošpitalea]	ospitala	Hospital
Restorana [reštorana]	jatetxea	Restaurant
Xopa [sopa]	Denda	Shop
Kolixa [kolisa]	Ikastetxea	College
Kortea [kortea]	Auzitegia	Corte
Kartierra [kartjera]	Auzoa	Quarter
Ofiza [ofisa]	Bulegoa	Office
Materra [matera]	Arazoa	Matter
Espexiala [ešpesjala]	berezia	Special
Konforta [konforta]	Erosoa	Comfort
Jun Barrura [xun barura]	sartu	To go into
Denbora ona izan [denbora ona isan]	Ondo pasatu	To have a good time
Estrita [eštrita]	Kalea	Street
Fast [fást]	arin	fast
Oldziria [oldzirja]	Alde Zaharra	Old-town, Old City

### Beste gramatika fenomeno batzu

Nahiz eta hemendik joandako euskaldunak urte batzu han eman arren, beren hizkerak salatzen ditu ingelesez hitzegiterakoan ere. Fenomeno hauek pertsona helduei nabarmentzen zaizkie gehienbat eta ia beti hogeitau urte baino gehiagorekin joan ziren emigranteei. Jakina da, hizkuntza bat ondo menderatzen ez duenak egitura sintaktikoak oso sinplifikatuak erabiltzen dituela. Bestaldetik, honetaz gain, lexiko ingeles bat tartekatzen du bere esaldietan. Lexiko ingeles honen erabilpenaren garrantzia, normalean bertan zenbat urte bizi izan diren arabera doa. Hitz ingelesen balioa ez da normalean oso espezializatua izaten, gehienbat eguneroko hitzegiko hitzak izaten dira. Adibidez sustantibo zehatz hauek maiz erabiltzen dira ingelesez ere: CHAIR (eserlekua), Window (lehioa), STORE (denda), Car (berebila), HOUSE (etxea), BOSS (nagusia), BICYCLE (Bizikleta), eta honela beste batzu, edo baita ere adjetiboak: NICE (ederra), EASY (erraza), SORRY (sentitzen dut), OLD (zaharra), STRONG (sendoa)...

Lexikoaren zati batzu askotan ingelesez azaltzen zaizkigu, adibidez: Astearen egunak, urtearen hilabeteak, zenbakiak eta koloreen izenak.

Era berean, sintagma osoak tartekatzen dira esaldiaren barnean.

Hemen adibide batzu:

- THAT'S GOOD (Ona da).
- SOME PEOPLE DON'T LIKE IT (batzuei ez zaie atsegin).
- YOU KNOW (badakizu; askotan ez du ezer adierazten eta koetila bat besterik ez da).
- YOU SEE (ikusten duzu).
- EVERY YEAR (Urtero).
- GOOD LANGUAGE (Hizkera garbia).
- THAT'S NICE (Ederra da).
- ANYWAY (Dena dela).
- MAY BE (Behar bada, liteke).

Esaldi laburretan askotan agertzen da euskararen egitura sintaktikoa: Sujetoa - Objetoa - Aditza.

- John to store is gone. (John dendara joana da).
- Mary new shoes have bought. (Maryk zapata berriak erosi ditu).
- I drink want (Nik edan nahi dut).

Pronombre pertsonalak ere entzuten dira euskara hitzegiterakoan. Gehienbat bigarren eta hirugarren pertsonak: YOU (Zu, zuek), HE (Hura).

- You joango zara.
- He etorri da.

Sintaxizko egitura luzeagoetan, honelako fenomenoak, ordenari dagokionez ez dira hain erraz aurkitzen, euskara eta ingelesaren egitura arras desberdina delako.

Dena dela, eta hemen gertatzen den moduan asko entzuten da BECAUSE partikula, gaztelerazko “Porque” erabiltzen den moduan.

– Ez noa lanera because (bikoše) gaixorik nago.

Euskararen arazo larriena da ez duela nahiko denborarik bere garapena jarraitzeko, zeren eta belaunaldi batetik bestera izugarrizko atzerakada egiten bait du.